



LEINUEN IBILBIDEA

Arabako lurralde antolamendua betidanik oso berezia izan da. Arkeologia behe inperioko kokalekuen eta goi erdi aroko herrisken artean dagoen jarraikortasuna frogatzen ari da. Behin Iruñeako Erresuma eraturik, IX. mendean, leku hauetako biztanleak beraien eremuak administratzen hasi ziren jauntxo baten agindupean. Jaurerri txiki eta ugari hauek merindadeetan, zendeatan eta abar batzen ziren. Jauntxoek Arabako Kondea hautatzen zuten, eta hau arazo militarrez arduratzen zen. Iruñeako Erregeak teniente bat izendatzen zuten, baina kargua ez zen hereditaria eta ez zegoen lurraldeari lotuta.

1220 urtean Gaztelak Araba menderatu eta gero, jaurerriak feudalizatu egin ziren. 1332an orduko jauntxo arabarrak, Arriagako kofradian bildurik, zeuzkaten eskubide jurikzionaleri uko egin zieten, eta Gaztelako Erregearen esku utzi, Alfonso XI. ren esku hain zuzen ere, baina lurren jabetza beraien esku mantendu zuten. Honi "Voluntaria entrega" deitu zitzaion. XV. mendean jauntxoen arteko borroka ugari eman ziren gizate eta ekonomia poterea eskuratu nahian, bi bando nagusi ziren; ganboatarrak eta oñaztarrak. Garai honetakoak dira bisitatuko ditugun gotoretxeak eta jauntxoen etxeetako armarririk.

Ibilbidearekin **Heredian** hasiko gara. Bertako eliza ondoan zegoen herediatarren dorretik ezer gutxi geratzen da, eta erabat aldatuta dago. Herediatarrak penintsula iparraldeko leinu garrantzitsuenetakoa izan zen. Dorre hau 1443 urtean Juan Velascok suntsitu zuen, bandoen garaian, eta geroago berreraiki egin zen. Bertako San Cristobal eliza gebaratarren menpe egon zen. A-4006 errepidetik **Gebararantz** egingo dugu, bertan ezarri zuten Euskal Herrian hain garrantzitsua izan zen gebaratarrek leinuaren potere gunea. Gebara gure herriko hirigune zaharrenetakoa da, bertan arkeologoek Burni Garaiko herriska baten aztarnak topatu zituzten Santa Lucia gainan. Hirigunetik gorantz eginda bertako gazteluaren aztarnak ikusiko ditugu. Bandoen gudan, inguru honetan, gebaratarren ganboatarren taldeko buru izan ziren. 1481ean Errege Katolikoak Inigo Bêlez de Gebarari Oñatiko kondearen tituloa eman zioten. Gebaratarrek Nafarroako Erregeen tenenteak izan ziren 1200 urtean Gaztelak menderatu zuen arte.

Lehenengo altxamendu karlista bitartean, Gebara matxinoen bastiona izan zen, bertako gazteluan babesten ziren eta. Errepresalia moduan, gobernuaren armadak, Zurbano jeneralaren agindupean, 1838 urtean herria erre zuen. Gudaren ondoren, hurrengo urtean, bertako gaztelua ere suntsitu zuen bolbora erabiliz. Gazteluaren azpialdean XIII. mendean eraikitako jauregia topatuko dugu, gaur egun erortzeko zorian. Sekulako eraikina da, lau dorre zituen eta hauetako bat gaur egun berreraiki egin da.

Garai honetako dorretxe ugari aldaketa asko jasan dituzte jabetza aldaketak direla eta, esaterako, **Larrinzarko** Diaz de Arkaiatarrena, orain dela 30 urte inguru alboan garabi bat daukana inoiz hasten ez den berreraikitzea egiteko asmoz, edota **Ozaetako** Isasmenditarrena, zorigaitzoko berreraikitzea jasan zuena. Larreako Lazarragarrenarekin ez zen gauza bera gertatu, etxe hau "El Bolo" izenarekin ezagutzen da, eta bertan, 1550ean, Joan Pèrez de Lazarraga idazle euskalduna jaio zen.

A-3012 errepidetik jarraituz **Barriara** helduko gara. Barria 1990ean fundatutako zisterar mojen monastegia da, bertako abadeak arabar leinu indartsuen alabak izan zirelarik. Errepide honetatik aurrerantz eginez, **Galarretatik** igaroko gara, bertan Velascotarren dorrea erortzeko zorian aurkituko dugu, 1925ean sute batek suntsitua. Ondoren **Zalduondora** helduko gara, leinu garrantzitsuen kokalekua, Lazarragarren nagusia izanik.

Gure ibilbidea **Agurainen** amaituko dugu, bertako alde zaharrean inguruko leinu nagusiak bizi izan ziren: Vicuña, Zuazo, Lazarraga, Heredia, Santa Cruz, Ypiñarrieta, Luzuriaga, Eulate, Ordoñana,... hauen armarririk alde zaharreko kaleetako etxeetan ikusi ahal izango ditugu: kale nagusian, harategi kalean eta zapatari kalean hain zuzen ere. Baita bertako San Juan eta Sta Mariako elizetako kapera eta hilobietan.

